

# URA, GUZTION ESKUBIDEA

## Itziar Navarro Pikabea

**A**urtengo Oarso honetan ibaiei eta errekei buruzko hainbat gai landu dira, guztiak oso interesgarriak, ziur. Gai nagusia aitzakia hartuta, uraren inguruan idatziko dut nik, uraren kudeaketaren inguruan, hain zuzen ere.

Gure inguruan, askotan, ez gara konturatzeko urak duen garrantziaz. Beste gauza askorekin gertatzen zaigun bezala, eskasia dugunean gogoratzen gara hartaz. Gogoan dut txikitari, Nafarroako Erriberara oporretara joaten gineanean, ura moztzen zutela, lehorteagatik, eta kontuak atera behar genituela ura erabiltzeko orduan. Herriko iturrira ere joaten ginen, ur bila. Aspaldiko kontuak dira horiek. Orain, iturria ireki eta, noiz-nahi, ur freskoa dugu eskura, edangarria, osasuntsua; hotza batzuetan, egun zakar horietan freskatu eta indarberritzeko, eta beroa bestetan, hotza kentzeko. Ura dugu ibaietan, itsasoan, mendiko erreketan... Ez dugu arazorik lorategiak eta futbol zelaiak ureztatzeko.

Baina, munduko herritar askorentzat, errealitatea bestelakoa da. Hainbat gobernu kanpoko erakundeek gogoratu duten bezala<sup>1</sup>, Afrikan 300 milioi pertsona baino gehiagok ez dute ur edangaririk. Mundu osoan, 885 milioi pertsona inguruk ez dute ur osasuntsurik. Alegia, hartzen duten ura kutsatuta dago, substantzia toxikoak dituelako edo animaliek ere erabiltzen dutelako. Horrek esan nahi du erraz geratzen direla gaixorik. Horietako asko 5 urtetik beherako haurrak dira, uraren kalitate txarrak eragindako gaixotasunen batekin bizi

1. Ikus, Afrikaren alde lan egiten duten hainbat erakundeek, besteak beste, Alboan-ek, argitaratutako txostena, 2013ko martxoaren 22an, Uraren Egunean, "Agua, la sed de África" izenburuarekin (<http://es.scribd.com/doc/142528313/AGUA-LA-SED-DE-AFRICA>).



Luis García. 1<sup>er</sup> premio en Concurso Fotográfico de Fanderia 2012.

direnak: tifusa, kolera, disenteria edo gastroenteritisa; azaleko eta begietako infekzioak –ikusmena galtzea ere ekar dezaketenak–; ur kutsatuetan egondako intsektuek eragindako gaixotasunak...

Munduko Osasun Erakundeak dio egunean, gutxienez, 50 litro ur behar direla (50-100 litro izango litzateke egokiena, pertsona eta egun bakoitzeko), bizitza osasuntsua izateko. Ur hori erabiltzen da norberaren garbiketarako, edateko, arropa eta etxea garbitzeko, eta janaria prestatzeko. Munduan, 55 herrialde bizi dira zenbait hori baino gutxiagorekin, eta horietatik 35 Afrikan daude. Aldarapena egiteko, erakunde berak kalkulatu du 5 minutuko dutxa batek 95 litro ur kontsumitzen dituela. Europan, batez beste, 200-300 litro kontsumitzen ditugu egun eta pertsona bakoitzeko, nahi dugunean, nahikoa baitugu txorota irekitzea.

Afrikako eta Asiako eskualde askotan, emakumeek, batez beste, 6 kilometro egin ohi dituzte oinez ur bila. Nola azaldu gure seme-alabei beste toki batzuetan, ura eskatuta, Errenteriatik Donostiarainoko bidea egiten dutela, oinez, eta gero, pitxarra eskuetan edo buruan dutela, atzera etxera itzuli? Pentsaezina iruditzen zaigu. Nazio Batuek proposatzen dute munduko familia guztiak ura etxetik 1.000 metro baino gutxiagora eduki beharko luketela, edo, bestela esanda, gehienez ere 30 minutura. Baina ez da lortzeko erraza.

Gainera, 2.600 milioi pertsonak ez dute oinarritzko saneamendurik. Errazago ulertzeko, normalena da etxean komunik ez edukitzea. Eskoletan ere, sarri askotan falta dira, edo oso zikinak egiten dira. Senarra uda batez Ekuadorren ibili zeneko argazkietan, basoko etxe bateko komuna azaltzen zen, nazka ematen zuen pentsatze hutsak. Eta, haien zat, aurrerapen nabarmena zen. Askotan ez dugu daukaguna baloratzen, ez daukagun arte.

Uraren beharra eztabaiaezina da. Horregatik, urtetan Nazio Batuen Erakundeari eskatu izan zaio uraren eta saneamendu egokiaren beharra aitortzeko. Milurtekoko Garapen Helburuetan ere<sup>2</sup> jasota dago helburu hori. Zehazki, zazpigarren

2. Milurtekoko Garapen Helburuak 2000. urtean Nazio Batuetako Batzar Nagusietan munduko herrialde ia guztiak onartutako garapen helburuak dira. Zortzi helburu zehaztu eta kuantifikatu zituzten, 2015. urterako betetzeko. Oro har,

helburuak dio 2015.era ko erdira murriztu behar dela ur edangarria eta oinarritzko saneamendu zerbitzuak ez dituzten herritarren kopurua, mundu osoan. Eta badirudi helburua lortuko dela. Izan ere, 1990az geroztik, 2.100 milioi pertsonak lortu dute ur edangarria eta oinarritzko saneamendu zerbitzuak edukitzea, batez ere Asiako ekialdean. Nolanahi ere, beste horrenbestek ez dute komunikoraindik.

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak, 2010eko uztailaren 28an, aitortu zituen ur eta saneamendu eskubideak, giza eskubideen artean. Gainerako giza eskubideak gauzatzeko eta duintasunez bizitzeko ezinbestekotzat ikusten da ur garbia eta saneamendu egokia edukitzea. Ebazpenak Estatuei eta nazioarteko erakundeei eskatzen die ahaleginak egin ditzatela herrialdeei –berezi, garatzeko bidean daudenei– egoera hori gaintzen laguntzeko. Horretarako, eskatzen die okerren dauden herrialdeei eskaintzeko ur edangarria eta saneamendu osasungarria, garbia eta merkea lortzeko behar dituzten finantza baliabideak, gaikuntza teknikoa eta teknologiaren transferentzia.

Non dago arazoa? Ez al da munduan ur nahikorik behar guztiak asetzeko? Hemen egiten digun euriarekin, baietz esango genuke, urtegiak goraino beteta ditugu. Adituek diotenez, ez dugu orain dela urte batzuk edo mende batzuk baino ur gutxiago. Kontua ez da urik ez dagoela, baina munduko uraren %97 gazia da, beraz, kontsumorako edo bestelako jardueretarako erabili nahi badugu, lehenengo gatzak kendu beharko diogu, hainbat herrialdetan egiten den bezala. Ur geza %3 izango litzateke. Alabaina, horren herena dugu eskuragarri, zati handi bat Ipar eta Hego Poloetako glaziarretan baitago. Hortaz, azkenean, uraren %1 bat da erabilgarri eta eskuragarria: lakuetan, ibaietan eta lurrazaletik nahiko hurbil dagoena. Ur hori euriaren eta elurraren bidez berritzen da.

Nahikoa al da? Ur kantitatea ez da gutxitu, baina beharrak handitu egin dira: orain, jende gehiago bizi gara planetan; fenomeno meteorologiko bortitzagoak ditugu, muturrekoak, aldaketa

pobreziaren eta gosearen aurka borroka egitera, ingurumenaren narriadura geratzea eta hezkuntza eta osasuna hobetzera bideratuta daude helburuak.



klimatikoaren eraginez; ura kutsatuagoa dago; eta ez gara modu arrazionalen erabiltzen ari. Eloi Badia uraren publikotasunaren aldeko ekintzaileak azpimarratzen duenez<sup>3</sup>, kutsadurarena eta uraren erabilerarena dira arazo nagusiak. Ura kutsatu egiten dugu etxeetan erabiltzen ditugun substantziekin, industrian erabiltzen direnekin –horretaz zer edo zer badakigu Erreterian– eta nekazaritzan erabiltzen direnekin –ongarriak, pestizidak...–. Gainera, ez dira arazoizkoak uraren erabileran erabaki ditugun lehentasunak. Izan ere, nola liteke ura hain baliabide mugatua izanik, etxeetan ur horniduran etenak egotea eta,aldi berean, igerilekuak urez bete eta golf zelaiak ureztatzeko iristea?

Horrelako kontraesanak ditugu, bai herrialde aberatsetan eta bai pobregoetan. Adibide gisa, Afrikako ibaiak –Nilo, Niger, Kongo eta abar– emari handikoak dira, baina ur hori oso gutxi erabiltzen da, itsasora doa zuzenean, ez baitago hura eskuratu eta nekazaritza eremuetara edo herrixketa eramateko azpiegiturarik. Itxuraz, azpiegitura horiek egitea ez da estrategikoa. Eta horrek eragina du herritarren osasunean, bizi baldintzetan, nekazaritzako uzta... Azken urteetan egin diren inbertsioak nagusiki jarduera ekonomikoetara bideratu dira. Esate baterako, Etiopian edo Kenyan loreen negozioa indar handia hartzen ari da, eta horri lotuta, lurak ureztatzeko azpiegiturak erakitzen ari dira. Jarduera berri horrek lanpostuak eta aberastasuna ekarriko ditu herrialde horietara, landare eta lore koloretsu horiek iparraldeko merkatuetan salduko baitituzte. Baina, bitartean, nekazaritzako lurren %60 ureztatzeko aukerarik gabe gelditzen da, eta naturak berak, euriarrekin, laguntzen ez duenez, oso zaila da uzta ona ateratzea.

Ez da erraza arazoari irtenbidea aurkitzea. Horixe gertatzen da inorenak ez diren –edo guztionak diren– beste natur baliabide askorekin ere. Ura guztion ondasuna da, bizitzeko ezinbestekoa eta ordezkazina. Baina salgai ere bihurtu da kasu askotan, eta merkatuaren eskaintzaren eta eskariaren legeen mende geratu da.

3. Ikus *Argia* astekariaren 2379. alea, 2013ko uztailaren 28koa, [www.argia.com](http://www.argia.com) webgunean.



Uraren inguruan hitz egiteko bi ikuspegi kontrajarri ditugu, hortaz. Batetik, ura salgaitzat hartu eta haren hornikuntza efizientea izan dadin, ura eta iturburuak pribatizatzea proposatzen dutenena –krisi garai honetan, irtenbide hori proposatu izan zaie Europako hegoaldeko hainbat herrialderi, defizita murrizteko–. Eredu horren arabera, ura behar bat besterik ez da, eta behar horri ahalik eta eraginkortasun handienaz erantzutea da gakoa, beste ondasun eta zerbitzuekin gertatzen den bezala. “Petrolio berria” izan daiteke, ura merkatu zabala, errentagarria eta segurua baita, hainbat adituren arabera, “urtean 400.000 milioi dolarreko negozioa, alegia, petrolio negozioaren %40”<sup>4</sup>. Ur litro batek gasolina litro batek bezainbeste balio dezake, baina uraren ekoizpen kostua petrolioarena baino txikiagoa da.

Bestetik, ura gizakiaren oinarritzko eskubidetzat hartzen dutenen ikuspegia izango genuke, ur edangarria ahalik eta herritar gehienengana iristea ziurtatu nahi duena. Horren alde agertzen dira, besteak beste, hainbat herrialdetako herri mugimenduak edo garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak.

Zein ikuspegirekin egiten dugu guk bat? Inoiz pentsatu al dugu gai honen inguruan? Ziur aski, ez. Pentsa dezagun pixka batean, uraren freskotasunaz eta erreketako doinu alai eta lasaigarriez gozatzen dugun bitartean, baina neurrian, gure ondorengo belaunaldiei aukera hori kendu gabe.

4. *Fortune* 2000n jasotako datua, Alboan-en *Ura: ondasun publikoa* lanetik hartua.